

USTELKERIAREN AURPEGI EZBERDINAK

Egia esateko, hainbat modu daude politikari ustel bat izateko. Badakigu ustelkeria ez dela politikarien monopolioa, baina kasu honetan bereziki kaltegarria gertatzen da gizarterako, jarraitu beharreko bidea –bide zuzena– erakutsi behar dutenak politikariak eurak izanik.

Alde batetik, ustelkeria ekonomikoa daukagu. Ziur aski, hori da komunikabideetan gehien ateratzen dena; eta azken denboretan, Alderdi Popularra gidatu dutenen artean izandako ustelkeria-kasuak, esaterako, perretxikoak bezain ugariak izan dira eta egunero ditugu albistegietan. Ez dut esango Alderdi Popularrak ustelkeriaren gaineko monopolioa daukala, baina azken urteetan alde horretatik askotxo nabarmendu dela ez dago dudarik; eta are okerragoa oraindik, estatuaren eta autonomia-erkidego askoren gobernuak bere eskuetan zituela kontuan hartuta.

Dena den, gaur hemen salatu nahi dudana ustelkeria beste mota batekoa da, ustelkeria moralago eta etikoago bat: ustelkeria politikoa, zeina, nolana ere, ustelkeria ere baden, eta hor jausi direnak pertsona ustelak dira, eta behin beraien izaera ustela gizartearen aurrean agerian jarri ondoren, politikan aritzeko gaitasunik gabe geratu beharko lukete –legez akaso ez, baina etikoki bederen bai.

Kontua garbiago ulertzeko, adibide bat jarriko dut. Pentsa dezagun alderdi politiko baten ordezkariak beste alderdi politiko baten ordezkariari leporatzen diola inoiz egin ez duen iruzur bat egin izatea. Hau da, aipatu iruzurra ez da inoiz gertatu, den-dena izan da asmazio hutsa, hauteskunde jakin batzuen atarian, eta leporatzen dioten iruzurra egiatan egin ez duten aurkari politiko horien irudia zikintzea beste xederik ez dute izan.

Akusatzaileek badakite akusazioa faltsua dela. Baina akusazioari egiazkotasun- eta fidagarritasun-eitea ematearren, ez zaie besterik bururatu euren alderdi politikotik gertuko teknikariekin harremanetan jartzea, Irizpen bat erabat manipulatu presta dezaten, nahita egindako zehazgabetasunez betea beratu, eta finean, egiaren zerbitzuan ez, baizik eta gezurraren zerbitzuan jarria, Irizpen

horrekin ez baitute inongo egiarik azaleratuko; aitzitik, egia ezkutatzea izan dute gogoan; horri esker, merezi gabeko hauteskunde-emaizta batzuk lortzeko pozez –horrela jokatzeko dutenen moral eskasa agerian jartzea besterik lortu ez badute ere.

Kasu honetan, adibide bat jartzeko, eraikuntzarekin zerikusia duen Irizpen bati buruz ari gara; esaterako, obra jakin batez ari gara. Obra horren eraikuntzan hamaika bat enpresak eta hamaika bat teknikariak eta langileak hartu dute parte. Suposa dezagun –eta ez da asko suposatzea, orain badakigu-eta kasu honetan aipatu Irizpena gezur handi bat izan daitekeela–, ezen, obra horren exekuzioa zintzotasunez eginga dela, klausuletan ezarritako baldintzak betez eta, itxuraz, inongo diru-funtsik bidegabeki erabili izan gabe –antza.

Nola uste duzue sentituko direla, ez soilik obra jakin horren erantzule politikoak, baina obran bertan parte hartutako enpresetako teknikariak eta langileak eurak ere? Alderdi politiko horri ez dio piperrik axola izan pertsona horien guztien gaintik pasatzeak, zeinak, antza denez, mugatu egin baitira euren lana egitera eta, gainera, badirudi gauzak ondo egin dituztela, edo behintzat ez omen dago sakoneko arrazoirik hori horrela izan ez dela pentsatzeko.

Piperrik ere ez die axola izan gezurrezko txosten bat eta gezurrezko irizpen bat egiteak (berariaz, hori egia izango balitz, aipatu gezurrezko dokumentazioak prestatu dituzten teknikariek azalpenak eman beharko lizkiekete euren gizarteari, euren elkargo profesionalari eta eurek irekitako auziko epailari, edota hirurei batera).

Hori da nik ustelkeria politikoa esaten diodana, hori da etikoki eta moralki politikari ustel bat izatea. Horrela jokatzeko duenak ez luke gizartean ordezkarrtasun politikorik izan beharko, bere jokabidearekin frogatzen baitugu moralik ez daukala, etikarik ez daukala, eta ondorioz, politikari ustel bat dela.

Eta hori bera da salatu nahi nuena.

Futbol-partida bat edo beste edozein kirolerako partida bat ikusten badut, jokalarik batzuekin edo beste batzuekin identifikatzen naizen alde batera utzita, nik nahi dudana batez ere partida eder bat

ikustea da, eta bai, nire taldeak irabaztea nahi dut, jakina, baina hobeto jokatu duelako, partida irabazteko meriturik gehien egin dituelako edo zoria bere alde izan duelako. Horregatik nahi dut nire taldeak irabaztea. Aitzitik, nire taldeak partida irabaziko balu ostikoak emanez, joko zikina eginez edota arbitroa edo beste taldeko baten bat erosiz, kasu horretan, nire taldeaz lotsatuta sentituko nintzateke, eta irabaziko balute ere, ziurtatzen dizuet ez nintzatekeela kalera aterako nire taldearen garaipena ospatzera, egiatan ezer ospatzekorik izango ez nukeelako.

Ustelkeriaz akusatzea aldez aurretik jakinda akusazioa gezurrezkoa dela, hori oker jaiotakoek baino ez dute egiten.

Artikulu honetan esan eta salatu nahi nuena hori zen.

Eta argi eta garbi utzi nahi dut ez naizela bat ere obra faraonikoen zalea ezta Guinees errekor-dun obren zalea ezta antzekorik ere. Baina bata ez du bestea kentzen.

Politika beste era batez egin daitekeela pentsatzea gustatzen zait. Besterik gabe.